

Elgolbar 1363. zenb.  
XXXII. urtea - 2025/03/21



# Mendizaletasuna bizibide

Paula Pelaz







ELGOIBAR  
BHI

<http://www.elgoibarbhi.eus>

2025-2026 Batxilergoko aurrematrikulazio epea: martxoaren 31tik apirilaren 11ra arte (on-line zein ikastetxean)

**Informazio bilera: Martxoaren 25ean, Ezenarro eraikuntzan (MEKAN)**

**18:00etan euskaraz, eta 19:00etan gaztelera**



943 899 316  
013431aa@hezkuntza.net



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

943 744 112 - 688 655 658

Publizitatea: 943 745 704 - 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Lere Kerexeta, Nagore Cancio, Saioa Rodriguez, Iker Lauzirika, Arkaitz Uranga, Naia Aizpurua, Andoni Segundo, Irene Macazaga **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://www.facebook.com/barrenaldizkaria)



[x.com/barreneus](https://x.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://www.instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://www.youtube.com/@Elgoibarrennet)



[mastodon.eus/@barren@tkm.eus](https://mastodon.eus/@barren@tkm.eus)

Irene Macazaga Nuñez

Hizkuntzalaria eta doktorego aurreko ikertzailea

## Euskarari nondik begiratu eta zergatik



*"Euskararen gaineko zenbait galderari zuzen erantzun nahi badiegu, euskarari zientziaren begietatik so egin beharko diogu"*

Ukaezina da euskarak duen alderdi identitarioa, hots, euskara eta euskaldunon nortasuna batera doaz, eskutik. Hala izanagatik ere, lotura estu horrek sarri itsutzen du gure juzkua; batzuetan ez diogu euskarari objektibotasunez begiratzen, zientziatik. Maiz betetzen zaigu ahoa gure hizkuntzaren historiaren gaineko kondairekin. Horrez gain, euskarari exotikoa eta bakarra deritzogu, ergatiboa (Ni-k liburua ekarri dut) bezalako ezaugarri linguistikoak dituelako, adibidez; ez da hizkuntza bakarra munduan, ordea.

Euskararekin dudan harremana eraldatuz joan da urteekin, eta esango nuke, gaur egun, bi leku desberdinetatik begiratzen diodala euskarari. Funtsean, euskaraz mintzatzen naiz, eta, beraz, nahitaez du eragina nire bizitzan, zentzu praktikoan zein identitate-kontuetan. Euskarari, berriz, nire ikergaia den heinean, azterketa sakona egin nahi badiot, zorrotz begiratuko diot. Esaterako, euskal sintaxia aztertu nahi badut, hau da, euskal hiztunak esaldiak nola osatzen dituen, euskara munduko beste hizkuntzekin alderatu beharko dut. Eta mesedegarria baino gehiago, kaltegarria egingo zait euskara bakarra dela pentsatzea; besteen gainean kokatuko dut, nolabait esatearren.

Ez dut horrekin esan nahi euskara modu objektiboan bizi behar dugunik, ez. Ez eta hizkuntzalaritzaren alor denek identitatearen kontua baztertu behar dutenik ere. Ziur aski, soziolinguistek osagai horri ere erreparatu beharko diote, zientziatik, noski. Idazlan labor(egi) honetan azpimarratu nahi dudana gauza bakarra zera da: euskararen gaineko zenbait galderari zuzen erantzun nahi badiegu (nire kasuan, nola sortzen ditugun esaldiak), euskarari zientziaren begietatik so egin beharko diogu; eta horretarako, alde batera utzi beharko ditugu kondairak eta istorioak, baina, batez ere munduan bakarrak garelako sinesmena.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

### Bihar Donostiara, bai ala bai!

Gernika-Palestina ekimenak mobilizazio nazionala antolatu du larunbaterako, hilaren 22rako, Donostian. Bi hilabeteko su-etenaren ondoren Israelek hautsi eta berriz eraso egin die palestinarrei, Gaza bonbardatuta, 400 hildako baino gehiago eraginez.

Horren aurrean, euskal gizartearen erantzuna ezinbestekotzat jotzen du Gernika-Palestina ekimenak eta larunbatean *Genozidioa stop! Israel, ialto el fuego ya!* lelopean kalera ateratzeko deia egin du. Duela urtebete juxtu Gazaren aurkako genozidioaren kontrako mobilizazio deigarri eta erraldoia egin zen Donostian, genozidioaren biktimak irudikatuz.

Larunbateko mobilizazioa Boulebarretik abiatuko da, 17.30ean, eta Sagueseraino joango da. Gernika-Palestina ekimenak nazioarteko komunitateari eskatzen dio dituen baliabide guztiekin Israel behartu dezala nazioarteko erabakiak behingoz betetzeko eta su-etenaren bideari itzultzeko Palestinako herriaren eskubideak bermatze aldera, hau da, Palestinak justizia, lurra eta bakea izan ditzan.

Ezin gara isilik geratu, larunbatean goazen Donostiako kaleak betetzera! Stop genozidioa!

A.I.Z.



**ILUNBERRI ACADEMIA**  
**ZUMALACÁRREGUI Y LA REPÚBLICA DE LOS PIRINEOS**  
**Jose Mari Esparza Zabalegi**  
"Zumalacárregui y la República de los Pirineos" liburuaren aurkezpena.  
Martxoak 27, osteguna . Aita Agirre kulturgunean. 19:00etan



**Danobat Kooperatibak**  
bi urtetarako dirulaguntza eman dio  
Elgoibarko Izarrari,  
baserrietan ere **BARREN** astekaria  
ostiraletan banatu ahal izateko.  
Mila esker, Danobat.

**Danobati esker,  
baserrietan ere,  
BARREN ostiraletan**







Zuen keiak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### **Maalako parkeko iturriko estolda errekarra bota dute:**

"Maalako parkeko iturriko estolda bere lekutik kendu eta Deba ibaira bota dute. Jendeak ez du ezer errespetatzen. Orain arriskutsu dago ingurune hori, eta ume txikiek hankak sartzen dituzte bertan. Eskertuko genuke lehenbailehen konpontzea".



### **Aparkatzeko denbora mugatua ez dute behar bezala zaintzen:**

"Herriko hainbat gunetan ez dute behar bezala zaintzen aparkatzeko denbora-muga. Santa Ana kalean, esaterako, goizetik gauera arte leku berean aparkatuta egoten dira autoak, berez ordu eta erdikoa denean han aparkatzeko baimena.

Horrez gain, oinezkoentzako gunetako ordutegiak ere ez dira zaintzen. Santa Ana kalean ordutegi jakin batean garajeetako jabeak bakarrik sartu daitezke, baina baimenik ez duten jende asko sartzen da, eta batzuek gainera, han aparkatzen dute. Gidari batzuek ez dute ezer errespetatzen".



### **Mila esker, Musika Eskolari Barriako esperientziagatik:**

"Joan zen asteburuan Musika Eskolako koruko ikasleak Barriako aterpetxera joan ziren datozen kontzertuak prestatzera. Asteburua kantuan pasatu zuten eskola ezberdinetako umeez, nerabeek eta gazteek elkarrekin! Lagunak, partidak eta beste kopromisoak alde batera utzi eta Barriara joan ziren pozarren. Gurasook biziki eskertzen dizuegu guzti hau posible egin duzuen guztioi eta bereziki zuen asteburu librea gure seme-alabekin pasatzeko erabili zenuenoi. Mila esker, Alaitz, Noemi, Imanol, Ane, Iñigo, Beñat, Imanol eta noski, Silvia! Barriako oroitzapenak gure seme-alabengan geratuko dira betiko zuen konpromiso eta jarrerari esker! Bejondeizuela guztioi! Kantuz bizi!"





## Maiatzaren 15etik 25era

### EUSKARALDIA ariketa egingo dugu Elgoibarren eta Euskal Herri osoan.

Badakigu lehen edizioako ilusioak behera egin duela.  
Badakigu ekimenak indarra galdu duela.  
Badakigu.

Baina EUSKARALDIA behar dugu:

- ✓ Euskara eta euskararen erabilera agenda eta iritzi publikoaren lehen lerroan jartzen duelako.
- ✓ Kontzientzia linguistikoetan eragiten duelako.
- ✓ Hizkuntza ohitura batzuk zalantzan jartzen dituelako.
- ✓ Euskararen erabilera areagotzeko ariketa nazionala delako.

Munduan ez da sekula inon eta inoiz horrelako ariketa sozial masiborik egin hizkuntza baten erabilera areagotzeko. EUSKARALDIA edota KORRIKA bezalako ekimenak gu-rean bakarrik egin eta bizi dira.

## Eman izena eta egin EUSKARALDIA!

[www.izenematea.euskaraldia.eus](http://www.izenematea.euskaraldia.eus)





## 'Debabarrena Gourmet' egitasmoa egingo dute martxoaren 28tik apirilaren 13ra



**D**ebabarreneko turismoa sustatzeko asmoz, *Debabarrena Gourmet* egitasmoaren bigarren edizioa egingo dute martxoaren 28tik apirilaren 13ra. Eskualdeko sei jatetxek (tartean, Elgoibarko Belaustegik) gourmet dastatze menuak eskainiko dituzte egun horietan 65 euroren truke. Menua zazpi plateraz osatuta egongo da: aperitiboa, bi hasierako, bi plater nagusi (arraina eta haragia) eta bi postre. Aurten hauek hartuko

dute parte: Belaustegi Baserria, Eibarko Baratzte Gourmet, Itziarko Kanala, Mutrikuko Pikua, Soraluzeko Txurruka eta Debako Urgain. Jatetxe bakoitzak bere menua diseinatu du, eta proposamen guztiak *debabarrenaturismo.com* webgunean daude ikusgai. Otorduez gozatu nahi dutenek jatetxera bertara deituz egin beharko dute erreserba, Debabarrena Gourmet menua dastatu nahi dutela azalduz.

### Sakeleko telefonoaren erabilerari buruzko umorezko bakarrizketa eta tertulia antolatu dituzte datorren barikurako

Altza Burua mugimenduaren barruan sortu den Elgoibarko Amataumobila taldeak eta Udalak sakeleko telefonoaren erabilerari buruzko umorezko bakarrizketa antolatu dute datorren bariku-

rako. 'Ba ote dut argudiorik seme-alabek mugikorra ondo erabiltzeko?' jarri diote izena saioari. Bakarrizketaren ondoren tertulia ere egingo dute. Aita Agirre kulturgunean izango da, 18:30ean.



### Stock ferriako zozketan saritutakoek jaso dute saria

Joan zen astean egin zuten zozketa eta saritutako lau lagunek astelehenean jaso zuten saria. Maider Lete, Jose Miguel Lariz, Ana Perez eta Ana Fernandez izan dira sarituak.

Txankakuako elkarteko merkatariek kalera atera zituzten produktuak martxoaren 6tik 8ra egin zuten Stock Kale Azokan, eta egun horietan erosketak egiten zituzten herritarren artean zozkatu dituzte 400 euroak.

## Udako oporraldiko eskaintzan izena emateko epea zabaldu dute gaur Atxutxiamaikak eta Ludotekak

**E**lgoibarko Izarraren Atxutxiamaika Sailak eta Udal Ludotekak prest daukate udako oporraldirako eskaintza, eta gaur zabaldu dute izena emateko epea. Interesatuak apirilaren 13ra arteko epea dute izena emateko. Aurrez aurre, ludotekan eta Elgoibarko Izarraren bulegoan eman daiteke izena, eta bestela Elgoibarko Izarraren webgunean ([elgoibarkoizarra.eus](http://elgoibarkoizarra.eus)).

Atxutxiamaikak Haur Hezkuntzako umeentzako txokoak prestatu ditu, HH2tik HH5era artekoentzat. Ekainaren 23tik uztailaren 18ra izango dira, eta bi txanda egongo dira aukeran, ekainaren 23tik uztailaren 4ra lehenengoa eta uztailaren 7tik 18ra. Goizez izango dira, 09:30etik 13:00etara, eta nahi duenak zaintza zerbitzua ere izango du aukeran. Horrez gain, uztailaren 24ko asterako zerbitzua ere emango dute.

Ludotekak, bestalde, Lehen Hezkuntzako umeentzako eskaintza prestatu du. LH1, LH2 eta LH3koentzako txokoak egongo dira, ekainaren 23tik uztailaren 18ra. Goizez izango dira, 10:00etatik 13:00etara. LH4koek bestalde, ekainaren 30etik uztailaren 4ra izango dituzte ekin-tzak: hiru egunetan goizeko jarduerak egingo dituzte eta bi egunetan egun osoko irteerak. LH5ekoentzat ere eskaintza berbera prestatu dute, uztailaren 7tik 11ko asterako, eta LH6koek



udaleku itxiak izango dituzte, Orion, ekainainaren 20tik 22ra.

Udalekuei buruzko informazio zabalagoa [barrren.eus](http://barrren.eus)-en.

Dirulaguntzak eskatzeko epea martxoaren 21etik apirilaren 30ra arte egongo da zabalik. Informazioa Udaleko HAZ zerbitzuan (943 741 050) edo Ludotekan eskuratu daiteke.

### Jolasa kalera aterako du Atxutxiamaikak gaur arratsaldean



*Jolasa Kalera!* egitasmoaren lehenengo saioa egingo du gaur Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaikak, Lekuederren. 0-5 urte bitarteko haurrentzat izango da, eta espazioa bi eremutan banatuko dute: alde batetik, 0-18 hilabetekoentzako gunea, eta bestetik, 18 hilabetetik hasi eta 5 urtera artekoentzako. 16:30etik 19:30era izango da, doan. Euria egingo balu, parrokiako arkupeetan.



## Repsol Gidaren Eguzki saria jaso du Karmine jatetxeak



Javier Sarasua eta Maria Escobedo neba-arreba elgoibartarrek kudeatzen duten Karmine jatetxeak 2025eko Repsol Gidaren Eguzki sarietako bat jaso du. Santa Cruz Tenerifekoan (Kanariar Uharteak) egin zuten sari banaketa, eta Sarasuak berak jaso zuen saria. "Lurraldeko sukaldaritzaren egiten dugun gure probintzian aurkitzen ditugun produktuekin eta inguruko eremuetako errezetetan eta oinarrituta. Gure asmoa ez da sukaldaritzaren tradizional autentikoa egitea, hartatik abiatzea baizik, aukera eguneratu bat eskaintzeko", adierazi zuen galan. Duela pare bat urte pasatxo zabaldu zuten jatetxea Gasteizko Herran kalean. Dastatze menu berezia eskaintzen dute, Valentziako eta Euskal Herriko zapoak uztartuta. Carmina Tomás zuten ama, valentziarra, eta amaren omenez jarri zioten Karmine jatetxeari.

## Kiroldegiko jolasgunea berritu dute Haur Hezkuntzako Mekako ikasleek



Olaizaga kiroldegian 0 eta 4 urte bitarteko umeentzako jolasgunea dago, eta espazio hori hobetzeko proiektua gauzatu dute Meka ikastetxean Haur Hezkuntza ikasten ari diren goi mailako zikloko bigarren mailako ikasleek, Udalarekin elkarlanean. Zehaztu dutenez, ikasleek aktiboki parte hartu dute material berrien hautaketa prozesuan zein horiek bere lekuan jartzeko lanetan, eta espazioa optimizatzeko beharrezko konponketak ere haiek egin dituzte.

2023ko abenduan inauguratu zuten ume txikienezko jolasgunea 25 lagun hartzeko prestatua dago. Doan erabili daiteke, ordutegi honetan:

- Barikua: 16:30 - 19:30
- Zapatua: 09:30 - 12:30 eta 16:00 - 19:30
- Domeka eta jaiegunetan: 09:30 - 13:00

## Elikagaien bilketa egingo dute Zaporeak egitasmoaren barruan, hilaren 24tik 28ra

Greziako Lesboseko kanpamenduan dauden errefuxiatuei jaten emateko janari bilketa egingo dute Debabarrenean, martxoaren 24tik 28ra. Herri bakoitzean elikagai bat bilduko dute: Eibarren, pardina dilistak; Elgoibarren, garbantzu pedrosillanoa; Deban, Ermuan eta Soraluzen, bon-

ba-arroza; Mallabian eta Mendaron, hodi erako makarroiak; eta Mutrikun, arraina kontserban. 50.000 kilo batzeko erronka jarri dute aurrean.

Horrez gain, errifak ere salduko dituzte, eta martxoaren 29an tupper solidarioa ekimena egingo dute Ermuan.

## || Musikaz beteriko asteburua, Barrian



I nazio Bereziartua musika eskolako 105 neska-mutil eta zortzi irakasle Barrian izan ziren joan zen asteburuan, maiatzean Herriko Antzokian egingo duten kurtso amaierako emanaldia prestatzen. Gogotik lan egin dute, baina aisialdirako denbora ere hartu dute. Entseguen artean ginkana, jolasak eta show gaua ere egin zuten. Adin desberdinetako ume, nerabe eta gazteak bat eginda, primeran pasatu dute. Kantuz bizi dira eta kantuz sortzen dute, eta musikarekin eta musikaz gozatzen dute. Musikaz beteriko asteburu bete-betea igaro dute. Argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus)







*Elena Perez eta Javier Vargas Mufomi museoan.*

## ELENA PEREZ

Ingurumen teknikaria

✍️ Ainhoa Andonegi   📍 Asier Orbea

Duela bi urte iritsi zen Elena Perez (Zaragoza, Espainia, 1980) Elgoibarrera. Ingurumen teknikaria da ikasketaz, eta biologia, zoologia, antropologia eta natura ditu gustuko. Mufomi fosil eta mineralen museoa deskubritu zuenean harrিতa geratu zen, eta gaur museoko kolaboratzailea da. Naturan aurkitzen dituen bitxi-keriak jaso eta museora eramaten ditu, hango altxorra osatzen laguntzeko. Itsasoa ere maite du, eta orain, itsasoko gatz purua sortzeko prozesua asmatu du. Patentatu egin du prozesua, eta udarako jarriko du salgai produktua. Supermerkatuko lana laga eta aurrerantzean pasioa duena ofizio bilakatzea du helburu.

*“Piramide forman kristalizatutako itsasoko gatz purua sortzeko prozesua patentatu didate”*

**Ingurumen teknikaria zara ikasketaz, eta ahal duzun guztian praktikan jartzen duzu ikasitakoa.**

Bai, nire pasioa da. Biologia eta zoologia gustatzen zaizkit bereziki, baina baita fosilak eta mineralak ere. Erdi mailako ikasketak ditut eginak, bi urtekoak, eta hor oinarri sendo bat hartu nuen, baina nik nire kabuz sakondu ditut ikasketak. Liburu pila bat daukat etxean, eta liburutegian ere ordu asko pasatzen ditut. Botanika, arkeologia, artisautza, zoologia... dena gustatzen zait. Ofizios supermerkatuko langilea naiz, baina badauk ogibidez aldatzeko proiektua eskuartean.

**Zein proiektu daukazu orain eskuartean?**

Elgoibarrera etorri nintzenean bizitzera itsasoa deskubritu nuen, eta maitemindu egin nintzen. Hasi nintzen itsasoko fauna aztertzen, eta itsaski haztegi bat sortzeko ametsa piztu zitzaidan. Horretarako itsas gatz behar nuen, eta gatz ikertzen hasi nintzen. Kristo aurretik 3000. urtera arteko gatz motak aztertu nituen. Hortik abiatuta, itsasoko gatz purua egiteko prozesu bat aurkitu nuen.

**Zertan datza prozesuak?**

15 orduko prozesua da, baldintza oso bere-

*"Nire lana utzi eta gatza egiteari  
ekingo diot epe laburrean.  
Konfiantza osoa daukat  
produktu honetan"*

zietan egiten dena, eta faktoreren bat aldatzen bada, ez du funtzionatzen. Oso adi zaindu behar da prozesu guztia. Itsasoko uretik abiatzen naiz, baina ur hori garbitu egiten dut, ura soilik edukitze arte. Filtro organikoak erabiltzen ditut, eta gero mikroskopioarekin ziurtatzen dut ez dagoe-la ezer, ur purua dela. Gero beroa eta ebaporazioaren bitartez lortzen da gatza. Espazio itxi batean egiten dut, beraz, ez da zikintzen, eta azken emaitza gatz garbia da. Ez dago beste eze-rekin kontaktuan, eta gatza da soilik. Prozesua patenteen elkartera aurkeztu nuen, eta onartu egin didate. Irailaren 24an jakinarazi zidaten une horretatik aurrera beste inork ezingo duela prozesu hau koptatu. Lursail bat erosi dut, laba ere bai eta hilabeteko epean-edo hasiko naiz produkzioan. Ondo bidean, udarako jarriko dut salgai nire produktua. Lan asko dauka eta oso kantitate gutxi lortzen da, baina produktu oso ona lortzen da. Nire lana utzi eta gatza egiteari ekingo diot epe laburrean; konfiantza osoa daukat produktu honetan. Beti gustatu izan zait esperimintatzea, eta Interneten eta liburutetan irakurritakoarekin lortu dut hau. Ilusioz beterik nago, piramide forman kristalizatutako itsasoko gatz purua sortzeko prozesua patentatu didatelako. Patente euskalduna izango da, elgoibartar moduan egin dudalako eskaera.

**Zein berezitasun dauka gatz horrek?**

Aurretik ere egina neukan gatza, baina ohiko gatza. Hau desberdina da. Gatzak normalean kubo forma dauka, baina nire prozesuan piramide forman kristalizatzen da. Itsasoko gatz puruak gure gorputzak behar dituen nutriente guztiak ditu, azken batean ura eta gatza garelako. Urak daukan zikinkeria guztiak kenduta, gatz osasuntsuagoa da, kimikorik ez dudalako erabiltzen, eta gainera, zapora oso berezia dauka. Sukaldatzeko produktu oso interesgarria da. Nik etxean eduki izan ditut akuariumak, eta konturatzen nintzen dendan erositako itsas-gatzarekin animaliak hil



*Elena Perez, gatza egiteko prozesuan. Itsasoko ura hartu, garbitu, iragazi eta itsasoko gatz purua sortzen du. Iaz patentatu zioten prozesua.*

egiten zirela, beraz, argi zegoen kloruro sodikoa baino gehiago daukatela gatz horiek.

**Elgoibarko Mufomi fosil eta mineralen museoarekin kolaboratzen duzu. Nola deskubritu zenuen museo?**

Elgoibarrera iritsi nintzenean egin nuen lehenengo gauza liburutegia aurkitzea izan zen. Baz-



kide txartela atera nuen eta hasi nintzen liburuak hartu eta irakurtzen. Eta halako batean, kalean nindoala, kartel bat ikusi nuen, Mufomi izenarekin, eta fosilen irudiekin. Gerturatu nintzen eta museoa Elgoibarren bertan zegoela deskubritu nuen. Argi neukan bisitan joango nintzela. Javier Vargas bertako arduradunarekin geratu nintzen, eta berak erakutsi zidan museoa. Txundituta geratu nintzen. Javierrek, gainera, azalpen guztiak eman zizkidan, pasioz, eta konturatu nintzen bere bitzitza eman ziola museoari. Ez dut ulertzen museo horrek daukan balioarekin kartel soil bat izatea kanpoan. Bestelako errekonozimendu bat beharko luke, eta Debabarreneko turismo gidan sartu beharko lukete. Atzeritik jende pila bat etortzen da flyscha ezagutzera Zumaiara, eta pakete horretan museo honen berri ere eman beharko lukete.

Izugarrria da. Ni ia egunero joaten naiz orain, eta naturan aurkitzen ditudan gauzak eramaten ditut museora. Javierrek esaten dit baliozkoa den edo ez eraman dudan hori, eta hala bada, lekua egiten dio museoan. Mutrikuko portuan, esaterako, harrizko aingura bat aurkitu nuen, eta museoan dago orain zintzilik. Txingurriak ere izugarri gustatzen zaizkit, eta ordu asko eman ditut mendian txingurriak aztertzen. Eta horretan ari naizen bitartean, inguruko harriei ere erreparatzen diet eta zoezerk atentzioa ematen badit, argazkia atera eta Javierri bidaltzen diot. Berehala esaten dit interesekoa den edo ez, dena ere ezin dudalako batu. Mendian jendea paisajeari begira joaten da, baina ni normalean lurrera begira joaten naiz, harrien azpian begira!. Poza ematen dit museoa osatzen laguntzeak. Nire etxean jartzen badut, niretzako bakarrik da aurkikuntza, eta askoz aberagarriagoa da jendearen eskura lagatzea.

### **Txingurriak aipatu dituzu. Zein berezitasun dute?**

Landare, liken, larbak... denetarik aztertu izan dut, eta txingurriekin bereziki egin dut lan azken urteotan. Iberiar Penintsulako Mirmecologia elkartearekin ere kolaboratzen dut, eta inurriei buruzko informazioa osatzen dugu. Inurriak mota askotarikoak daude, Iberiar penintsulan bakarrik 300 bat espezie desberdin daude identifikatuta, eta azkenaldian inbaditzaileak ere etorri zaizkigu. Nire faboritua *camponotus cruentatus* espeziea da. Inurri handia da, eta ingurune lehorrekoa. Behin haiei begira nengoela ikusi nituen 30 bat inurri, beste inurritegi bateko bost inurri gatibu

*"Mendian normalean jendea paisajeari begira joaten da, baina ni lurrera begira joaten naiz, harrien azpian begira"*

hartuta zetoze. Preso zituzten, eta derrigorrean eramaten zituzten, gero jateko. Beste batzuetan inurrien larbak harrapatzen dituzte, eta jaiotzen direnean beraien taldeko moduan hezten dituzte, eta horiek ez dituzte jaten. Esango nuke gizakien antzeko ezaugarriak dituztela. Esperimentu asko egin ditut inurriekin, eta konturatu naiz zarata ere egiten dutela. Espezie batzuk jan ere egiten dira herrialde batzuetan, beste batzuk toxikoak dira eta kontuz ibili behar da. Nik jan izan ditut batzuk. Matxinsaltoak ere bai, sugea ere probatuta daukat... natura oso aberatsa da.



# UDABERRIARI DEIA

✍️👤 Ainara Argoitia / 📸 Nagore Urkiza

Udaberriaren etorrera ospatzeko jaia dute Mendaron Motxaila Eguna, baina negu beteko eguraldia izan dute aurten, eta eragin du parte-hartzean, bereziki zapatu goizekoetan. Ospakizunak, nolanahi ere, barikuan hasi zituzten, bertso-saioarekin. Izen handiko lau bertsolari eta herriko bertso-eskolako dozena bat bertsolari gaztek parte hartu zuten. Zapatuan, Aitzbeltz kobazulora igo ziren, eta eguna zukutu ostein, Gaztetxeko babesean amaitu zuten jaia ■







## PAULA PELAZ

Mendizalea

✍️ Ainara Argoitia

Gerra ostean jaio zen, Palentziako mendialdeko herri batean, eta beste askoren antzera, aukera bila etorri zen Euskal Herrira Paula Pelaz (Pison de Castrejon, Palencia, Espainia, 1941), umetatik liluratuta izan zuen Peña Redonda mendia atzean lagata. Atzera-aurrera batzuk eta gero, Elgoibarrera iritsi zen, eta hemen bertakotu. Elgoibarren osatu zuen familia eta eman zion bidea bere afizioari, mendizaletasunari. Gaur, emakume mendizaleen Txitxibilaldiak taldekoa da, eta joan zen abenduan Kirol Saria eman zion Elgoibarko Kirol Patronatuak, Mendia Sailean.



📷 Ricardo Astigarraga

*“Indarra ematen dit mendiak; indarra, ilusioa, barne-bakea eta askatasuna”*

### **Kirolari erreferenteen saria eman zizuten Gabonetan. Zer izan zen hura zuretzat?**

Ilusio itzela egin zidan. Deitu zidatenean oso urduri jarri nintzen, ez nuelako ulertzen zergatik aukeratu ninduten, baina beste batzuek nigan zerbait ikusi izanak izugarri poztu ninduen. 84 urte beteko ditut martxoaren 26an, eta hemen naukazu, sinistu ezinda moduan. Zoriontsu naiz, eta sasoiko sentitzen naiz. Carlos Soria mendizale eta alpinistaren pentsakerakoa naiz. 'Ez egin kasurik adinaz dioten gauzei. Adina ez da oztopo bizitzaz eta kirolaz gozatzeko jarraitzeko', esaten digu Carlosek, eta ez du arrazoirik falta. Gu baino gazteago diren makina bat dabilta buruko osasun arazoekin-eta, eta horrek tristetzen nau ni. Buruak esaten dit ahal dudan bitartean jarraitzeko mendiaz gozatzeko, nire erritmorari beti ere. Mendian -eta bizitzan- hori da garrantzitsuena, jakitea norberaren ahalak zeintzuk diren. Horregatik gustatzen zait niri gero eta gehiago mendira bakarrik joatea, ez dudalako nahi izaten besteen erritmoa oztopatzerik.

### **Palentziarra zara sortzez, mendialdekoa. Zer harreman izan zenuen han mendiarekin eta nolatan etorri zinen Euskal Herrira?**

Ume-umetatik liluratu naute mendiek. Pison

de Castrejongoa naiz jaiotzez, Palentziako mendietako herri txiki batekoa, paraje zoragarrikoa, eta akordatzeko naiz Peña Redonda tontorrarekin amesten nuela umetan. (Peñako mendilerroa, 1.993 metro). Hari begira bizi izan nintzen han, baina orduan ez geneukan aukerarik hara igotzeko. Gerra ostean zen, garai zaila, eta etxean lagundu beharra izaten genuen eskolatik irtendakoan. Euskal Herrira etorri eta gerora zapaldu nuen estreinako Peña Redonda. Bilbora etorri nintzen 18 urte bete aurretik, moja egiteko asmoz. Laster jabetuko nintzen hura ez zela niretzako bizimodua, baina gure gazte garaiko eskasia hartan aukera bat ikusi nuen, banuelako lehengusina moja apain bat eta ikusten nuelako zoriontsu bizi zela. Gose urteetan jaiotakoa naiz. Animalia gutxi batzuk eta ortua geneuzkan etxean eta handik atera zuten bizimodua gure gurasoek. Bost neba-arreba izan gara gu, neu zaharrena, eta ez dut esango umezaro txarra izan genuenik, umetan beste modu baten bizi delako dena, baina gure gurasoek nahikoa estuasun ibili zuten. Akordatzeko naiz etxeko arrautzak gorde egiten zituela amak, saldu eta diru harekin oinarrizko elikagaiak erosteko. Ez genuen guk arrautza askorik jan etxean! Denbora bat egin genuen lehengusina eta biok Bilbon, Santanderrera eramanez gintuzten gero, baina halako



batean konturatu ginen hura ez zela guretzako egina, eta itzuli ginen jaioterrira, dena lagata. Han ez zegoen ezertarako aukerarik, baina, eta 18 bat urte eginda bueltatu nintzen berriro Bilboko etxe batera, umeak zaintzera.

### **Nola oroitzen duzu Bilbo?**

Trenez etorri ginen Euskal Herrira. Grisa zen orduan Bilbo, keak ilundutakoa; zer esanik ez parraje garbi eta zabaletik zetorren batentzat! Beste bizitza batekoak iruditzen zaizkit orduko kontuak. Urte batzuk egin nituen han, harik eta Elgoibarren lana topatu zidaten arte. Sigman lan egiten zuen senarra izango nuenak, eta haren lankide batzuen etxean hasi nintzen, umezain. Elgoibar beste gauza bat zen. Hemen gertuago ikusten nituen mendiak, baina hala ere, umeak izan eta gero arte ez nintzen hasi mendian. Ordura arte, nahi bai, baina ez neukan zeinekin joan. Pili Martinezen familiarekin hasi ginen gu, etxekook, mendira. Morrikaikon eman genuen izena eta esnatu zen barruan neraban harra. Indarra ematen dit mendiak; indarra, ilusioa, barne-bakea eta askatasuna.

### **Nola batu zinen gero Txixibilaldiak taldera?**

Ez dakit orduan izenik geneukan, baina Txixibilaldiak ez zen behintzat, izen hori 2016an hartu genuelako, 2015eko martxoan betirako galdu genuen Lourdes Zubiaurre Pujana *Txixi* lagunaren omenez. Mariaje Izagirre, Marijose eta Izaskun Estibaritz ahizpak, Jose Luisa Huergo izan ziren talde horren aitzindari. Ni neu Pitxintxuko eskutik iritsi nintzen taldera. Esango nuke Pitxintxu izan dela guzti honetan gune nagusia; gauza asko egosi dira han, Uxue Alberdik *Dendaostekoak* liburuan kontatzen duen bezala. Nolanahi ere, Izaskun eta Marijosereren ama zena emakumeen taldera batzera joan nintzenean sartu nintzen ni mobida honetan. Elgoibarren hasia zen emakume talde bat gure eskubideen alde mugitzen, Juan Sanchez Vallejo medikuaren emaztea zen Isabel Valle, Gloria Santiago, Victoria Rubio eta abar dauzkat gogoan, eta haien ondora

*"Sinistuta geunden guk ere behar genuela gure espazioa eta denbora, eta sortu behar genituela guretzako aisia aukerak eta aitortu behar geniela gure buruei kirolerako eskubidea"*

eginda nenbilen ni. Egonezin bera geneukan. Sarrri hitz egiten zen euskal matriarkatuaz hemen, baina ez zen erreala. Azpiratua ikusten genuen emakumea, gizonen menera, eta hasi ginen mugitzen, abortatzeko eskubidearen alde-eta. Ama tentatzera joan nintzen ni Pitxintxura, baina Izaskun eta Marijose ere batu ziren mugimendu hartara, gaztetatik izan direlako oso borrokalaria. Haiek proposatu zidaten mendiko taldera batzea.

Gizonekin batera egiten genituen guk orduan planak. Hala zen garai hartan, behin ezkonduz gero, baina gu sinistuta geunden emakumeok ere behar genuela gure espazioa eta denbora eta sortu behar genituela guretzako aisia aukerak eta aitortu behar geniela gure buruei kirolerako eskubidea ere. Hala sortu zen gure taldea.

### **Nola ulertu zuten herrian hori?**

Denetarik izan zen. Batzuek oso ondo ikusi zuten, baina beste askok errezeloz hartu zuten,



*Paula Pelaz, Dolomitetan.*



*Txitxibilaldiak taldekoak Dolomitetan, Paula bera buru dela.*

'nora uste dute hauek iritsi behar dutela!' esanez moduan. Eta pentsa zenbat ibili eta zenbat gailur egin ditugun geroztik. Aspera (Pirinioak, 2.645 metro) egindako lehenengo espedizio hura daukat bereziki gogoan. 8-10 lagun joan ginen, autobus arrosa batean, eta zoragarria izan zen. Gailurra egin genuen momentuaz oroitzapen gutxi daukat, kostata egin banuen ere, baina ondo gogoan daukat jaitsiera gogorra izan zela. Harri solte asko zegoen eta sufritu zuten nire oinek. Bailarara iritsi ginenean oinetakoak kendu, ortozik ibili eta erre-kastoan sartu ginela oroitzen dut. Nire lehenengo 3.000ko mendia Taillon izan zen, baina. Pili Martinez eta haren etxekoekin igo genuen alaba eta biok. 40 urte ondo beteak nituen ordurako.

**Mendian bakarrik ibili zalea zarela diozu, baina taldean asko ibilitakoa zara. Iberiar penintsulako mendi garaienak igo eta tokian tokiko kultura ezagutzeko proiektuari ekin diozue orain ere Txitxibilaldiak taldekoak. Zer da zuretzat taldea?**

Zoragarri moldatzen gara. Izaskun [Estibaritz] da taldeko liderra. Berak diseinatzen ditu ibilbideak eta plan guztietan egoten da B plan bat, gaitasun eta erritmo ezberdinetakoak gaudelako taldean. Azkeneko irteeran, Alacantera egin dute-nean, ez dut parte hartu, hegazkinez egin behar zelako bidaia eta askoz aurretik hartu behar zelako dena, baina bai Soriakoan. Irteera hartan Zaragozako mendi garaiena igo zuten beraiek, Moncayo (2.314 metro), baina Soriako bigarren

tontorrik handienera, Muela de Urbionera (2.228 metro) neu ere igo nintzen, atzetik, eta Errioxako tontorrik garaienera ere iritsi nintzen, San Lorenzora (2.271 metro). Norberak hartu behar du neurria mendian, baina gailurra egin gabe ere mila aukera daude mendiaz goatzeko. Taldean izugarri ondo moldatzen gara. Lanak banatzen ditugu, eta oso ondo zaintzen dugu elkar. Piriniotara egin dugun azkeneko irteeran, esaterako, gailurra egiteko egunetan nik eta beste bik afaritarako lekua topatzen genuen, besteak jaisten zirenerako. Niretzat marabila bat izan da jende hau ezagutzea, eta zorte handiko sentitzen naiz eurekin hainbeste momentu on partekatzeagatik. Mendiak eta adiskidetasunak batzen gaitu, baina egonezin asko partekatzen ditugu, bereziki, libre izateko gogoan. Bitzta eman dit niri Txitxibilaldiak taldeak.

**Kilimanjarora igo zenutenekoa izan zen bereziki sonatua. Zer izan zuen berezia espedizio hark?**

Izugarria izan zen dena, bai prestaketak, bai igoera... dena. Kosta zitzaien batzuei espedizio hura ulertzea. Lankide baten purrustada daukat gogoan. 'Afrikaraino joan behar al zarete mendi bat ikustera? Ez al duzue beste mendirik gertuago?', esan zidan, eta nik erantzun: 'Ikustera ez, igotzera goaz'. Jende batek ez zuen ulertzen etxeko obligazioak lagata Kilimanjarora joatea, baina gure seme-alabek aitak ere bazituzten. Esango nuke denok bizi izan genuela hori, beste askoren ulertu ezina. Senarrak berak ere batzue-



tan animatzen ninduen joatera, baina ez beti. Gehienetan ez zuen ulertzen, garaiko gizona zelako hura ere. Ezin dugu gaur egundik inor epaitu. Zorionez gauzak asko aldatu dira, onerako, oraindik badagoen arren zer hobetua. Zamakartariekin eta mendiko gidari batekin igo genuen Kilimanjaro (5.895 m.). Bi gailur egin genituen espedizio hartan. Aklimatazioarako, Meru igo genuen, 4.566 metrokoa, eta gero egin genuen Kilimanjaro. Ez dakit Meru bera ez zen gogorragoa izan! Akabatuta jaitsi nintzen, baina han egotearen ilusioak berpiztu ninduen biharamunerako.

### **Hainbeste ibili eginda, beteko zenuen Peña Redonda igotzeko umetako ametsa, ala?**

Bai. Semeak 14 bat urte zituenean igo genuen estreinakoz koinatua eta hirurok. Eta neba Jose Luisek erretiroa hartu zuenean igo nintzen berriro. Elgojaitzakoa da gure neba eta beti esaten zuen jubilatutakoan jaiotza bat hartuta joan behar ginela hara. Lantegian egin zuen, eta haren taldekide bat ere etorri zen gurekin.

### **Jubilatuaren Biltokikoek proposatu zuten zure izena Kirol Sarietarako. Zein da zure parte-hartzea han?**

Kontsumitzaile hutsa naiz. Antolatzen dituzten irteera osasungarrietan parte hartzen dut, baina aste honetakora ezingo naiz joan, aurrerako batean Itziartik Debara bidean jausi eta oraindik ez nagoelako pisua bizkarrean hartuta ibiltzeko. Egunero ibiltzen naiz, eta asteburuan Parapaneraino igo nintzen, aldapan gora probatzeko. Hobeto nago, eta laster naiz berriro Karakaten. Gustatzen zait Azkaratera igo eta Sallobenterra jaistea ere. Nahi beste aukera daukagu ibiltzeko. Jabetzen naiz adinarekin indarra galtzen ari naitzela, baina nire pausoan edonora iritsi naiteke. Beste sekreturik ez dago hemen: ibili.

Elgoibarko Itzulian, Aiastiaraino igo ginen taldean. Handik Morcaikora igo behar zen gero, baina hain zegoen bero handia han gora ekiteko, lasterbidea hartu eta Idotorbera jaitsi nintzela. Itzuli erdia inguru egin nuen, eta pozik. Ibilian disfrutatzen dut. Ez daukat

*"Mendiak eta adiskidetasunak  
batzen gaitu Txitxibilaldia taldekoak,  
baina egonezin asko partekatzen  
ditugu, bereziki, libre izateko gogoan"*

gailurra egin beharrik, eta ez naiz erlojuari begira egon zalea. Ez dut ulertzen mendira kaskoak jantzita eta erlojuaren kontra igotzen den jendea. Natura entzun eta ikustea gustatzen zait niri, eta erne behar dira belarri eta begiak horretarako. Patxada behar da gozatzeko ere. Txantxangorri bat izan dut lagun Berazetara egindako ostertan. Eskura etortzen zitzaidan jatera. Gauza ederragorik... Txoriak eta tximeletak lagunak ditut, eta gustatzen zait haiei argazkiak egitea. Korrika dabilenak nekez du haiekin gozatzeko aukerarik.

### **Feminismoan militatzeak eraman zintuen Txitxibilaldia taldera. Gaur egun, Haizea taldeko kide ere bazara. Zer izan da Haizea Elgoibarrerako?**

Haizea existituko ez balitz, sortu egin beharko genuke. Emakumeak elkartzeko gune bat da. Lila Emakumeen Etxea ere badaukagu gaur, eta ikusi behar da zenbat gauza antolatzen diren Haizearen eta Lilaren bueltan. Ahal dudan guztian parte hartzen dut. Haizean buru-belarri dabiltzanek sekulako lana egiten dute, emakumeok ahalduntzeko, eta eskertzekoa da.



*Lavaredoren orratzei begira, Locatelli aterpean. Dolomitak.*

## Euskaraz sortu eta ekoiztako zortzi film labur emango dituzte domekan, Mendaron

Laburbirak, euskarazko film laburren zirkuitu ibiltariak, zortzi film laburrekin osatutako bilduma emango du aurten, eta domekan, hilaren 23an, Mendaron proiektatuko dituzte, San Agustin kulturagunean, 19:00etatik aurrera. Emango dituzten film laburren artean dago Jone Arriola elgoibartarraren *Hor konpon*, egunerokoan topatzen ez duten adrenalina lapurretan eginez topatzen duten bi lagunen kontakizuna. Hona hemen beste zazpiren sinopsiak:

■ *Prosopagnosia*. Ekain Martinezek zuzendutako filma. Jendearen aurpegiak ezagutzea eragozten duen gaitza da prosopagnosia, neurri batean, guztiok pairatzen duguna, egilearen arabera. Barne bidaia baten kontakizuna da.

■ *Plazer bat*. Sonia Estevezek zuzendutako filma. Stop motion teknika baliatuz, pertsona bakoitzak dituen eguneroko plazer txikiei egindako omenaldia da filma.

■ *Betiko gaua*. Eneko Sagardoyk zuzendutako lana. Alokaturako auto bat gidatzen ari den bati segika esistentziaren bihurtzean korapilatutako den Mirenen kontakizuna da.

■ *Europa*. Ekain Irigoienek zuzendutako lana da. Gerratik ihesi Parisera iritsi den Lubnaren istorioa kontatzen du. Gurasoengan jarria du pentsamen-

dua Lubnak, Mediterraneo zeharkatu eta amestutako lurraldean elkarrekin biziko direla baitu amets.

■ *Goodbay Kleper*. Nerea Ayala, Patricia Fañanas, David Modroño eta Iraia Yartok zuzendutako lana. Bederatzi urte espazioan bueltaka ibili eta gero, Kepler teleskopioa erregai gabe gelditu da. Haley, 12 urteko neskatua, hura agurtzera joan da berria entzun duenean.

■ *Utlandsk*. Alba Lozanok zuzendutako lana da. Esti Oiartzunera iritsi da sei urtez Suedian bizi ondoren. Herria ez dela aldatu baieztatu du eta Estiri kostatzen ari zaio jaioterrira egokitzea.

■ *Prentsatzen dut*. Karmele Mitxelenak zuzendutakoa. Amatasuna lan munduarekin uztartu ezinda dabil Bea, eta Nora lagunarekin erakusketa batera egindako bisitak barrenak inarrosiko dizkio.

### Erraldoi txikien erakusketa zabalduko dute gaur, Mendaron



Gorka Alonsoren eta Idoia Ortegaren bilduma-ko erraldoi txikiekin osatutako erakusketa zabalduko dute gaur Mendaron, jubilatuen ondoko lokalean. 333 erraldoi jarriko dituzte, berriena, orain gutxi eskuratu duten Urrezko Erregearen figura. Bihar eta etzi, eta hurrengo zapatu eta domekan bisitatu ahal izango da. Ordutegia: 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

### Elgoibarko bertso eskolako talde bat, 'Gelatik Plazara' sariketako finalean




Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak bertso eskolekin elkarlanean antolatzen duen *Gelatik Plazara* sariketako saioetako bat Mendaron egin zuten joan zen egunean, eta Elgoibarko bertso-eskolako Naia Eizagirre, Nora Garate, Oihane Meabasterretxea eta Sare Rubiok osatutako taldea sailkatu zen finalerako. Martxoaren 30ean izango da finala, Alegin. Bideoa: [barren.eus](http://barren.eus).



## Zumalakarregi eta euskal errepublikaz ariko da Jose Mari Esparza kultur eragilea, Elgoibarren

Zumalacárregui y la República de los Pirineos liburua aurkeztuko du Jose Mari Esparza idazle, editore eta Altafalla kultur elkartearen sortzaileak (Tafalla, 1951) Elgoibarren, martxoaren 27an (eguna). Liburu horretan egileak uko egiten dio euskaldunen karlistaldietako parte-hartzea dema dinastiko baten erregegai baten ala bestearen alde egitea izan zelako tesiari. Hala ere, motibazio nagusia foruak eta haiek eskaintzen zieten burujabetza defendatzea izan zela azpimarratzen du. Hori ez ezik, errepublika independente bat sortzea ere aukeren artean egon zela esaten du, makina bat bisitari eta behatzailearen lekukotzak bilduta.

Illunberri Achademia eta Elgoibarko Izarrak antolatu dute hitzaldia, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin, eta Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian izango da, 19:00etan hasita.



### Banatu ditu BARRENEK inauterietako argazki lehiaketako sariak



Argazki lehiaketa antolatu genuen inauterietan eta joan zen astearen hondarretan banatu genituen sariak, epaimahai teknikoarena eta publikoarena. BARRENEKO irakurleek Birakauterietako dragoia Maalan dagoen argazkia aukeratu zuten. Joserra Cabrerak ateratako argazkia da, eta 951 boto jaso zituen. Errigorak emandako otarra jaso du saritzat Cabrerak. Epaimahaiak, bestalde, Lore Bereziartuak bidalitako Skaterrak argazkia aukeratu zuen. Danobatek emandako oparia jaso zuen saritzat: Abatetxe landetxean bi lagunentzako gaua eta gosaria.

### Ideologia antifeminstaren gorakadaren inguruan arituko dira martxoaren 24an, Lilan

Pertsona multzo batek komunitate digital batean sortutako ideologia antifeminista eta misoginoari esaten zaio manosfera eta horri buruz, manosferak hartu duen indarrari buruz, hausnartuko dute martxoaren 24an Lila Emakumeen Etxean egingo dute saioan. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa eta ele bitan izango dela aurreratu dute antolatzaileek.

### San Bartolome jaietako egitarauak jarri dituzte ikusgai Elgoibarko Kultur Kafean

Gorka Alonso eta Idoia Ortega bildumazaleek 1943. urtetik gaur egunera arteko egitarau guztiak dituzte gordeta, pandemia urteetakoak izan ezik, eta horiekin osatu dute Elgoibarko Kultur Kafean ikusgai jarri duten erakusketa, diseinu grafikoaren bilakaera nolakoa izan den erakusten duena.

Martxoaren 25era arte egongo da ikusgai erakusketa, taberna ordutegian.

## Zabaldute Euskaraldian izena emateko epea

**M**aiatzaren 15ean hasiko da Euskaraldia, baina zabaldute herritarrek izena emateko epea. Gasteizko Izaskun Arrue kulturgunean egin zuten aurkezpenean azaldu zituzten Euskaraldiaren nondik norakoak, eta han nabarmendu zuten txapa jartzetik haragoko lanketa eskatzen duela Euskaraldia: hausnarketa, jarrera, bakoitzak bere burua erronkan jartzea... Horretarako izena eman behar da, jakina, *euskaraldia.eus* webgunean sartuta. Belarriprest edo ahobizi rola aukeratu eta formularioa bete beharko dute herritarrek. Datu horiek baliatuko dituzte gero Euskaraldiaren inguruko ikerketa egin ahal izateko, parte-hartzaileen jarraipena egiteko, txapak banatzeko, eta batez ere, antolatzaileek prestakuntza tresna eta aholkuak helarazteko.

Behin izena emanda aukeratutako rola eraberrako txapa eskuratu beharko dute parte-hartzaileek. Batzordeak ibiliko dira horretan buru-belarri Euskal Herriko herri eta txoko guztietan. Euskaraldiko lantaldearen ustetan ezin-

bestekoa da ariketak irauten duen 11 egunetan txapa soinean erabiltzea, aurrean den ezezagunak euskaraz badakien erakutsiko baitu txapak. Norberarentzat baino besteentzat keinu bat da txapa, beraz. "Estres linguistikoa ezabatuko du txapak". Izan ere, stres linguistikoa da pertsona elebidun batek, ezezagunen aurrean, hizkuntza gutxiagotua hobesteak ekartzen dion tentsioa.

### Euskaraldia "arnas luzeko" ekimena

Erabilerarentzat mesedegarri diren arau sozial berriak gizarteratu eta errotzea da Euskaraldiaren helburua. Gero eta jende gehiagok ulertzen du lehen hitza euskaraz egitearen garrantzia, eta elkarrizketa elebidunak gero eta arruntagoak dira gure inguruan. Hala ere, Euskaraldia "arnas luzeko" ekimena dela nabarmendu zuen aurkezpenean Irati Iciar Taupako lehendakariak: "Edozein ohitura aldatzea ez da erraza, are gehiago hizkuntza ohiturak direnean, baina, apurka-apurka, edizioz edizio, erabileran jauzi garrantzitsuak ekarri ditu".

### Txoteko Ezpata taldeak kontzertua emango du Mendaron hilaren 28an



Onintza Loiola, Mikel Cornejo, Rafa Furnier, Asier Etxaniz eta Josu Iriondok osatutako Txoteko Ezpata taldeak kontzertua emango du hilaren 28an Mendaroko San Agustin kulturgunean (22:00). Aurrez 6nemen9, c69, Andrankan, The Brian Valeta Movement eta Maraca Diablo taldeetan ibilitako musikariak dira taldekideak, eta joan zen urrian argitaratu zuen beren estreinako lana: *Ilunpean jai duzu*. Gararock taldeak antolatuko du kontzertua, Udalaren laguntzarekin.

### Helduentzako ipuin kontaketa saioa izango da Elgoibarren, martxoaren 27an



Intujai taldeak antolatutako *Ahoz aho'25* ahozkotasunaren nazioarteko jaialdiaren barruan, eta Quico Cadavalen saioak izan zuen arrakasta ikusita, Eva Andujar ipuin kontalari valentziarraren ipuin kontaketa saioa antolatu dute Elgoibarko Gotzon Garate udal liburutegikoek martxoaren 27rako. Saioa 19:00etan izango da, eta helduentzako izango da. Plazak agortu dira dagoeneko.



## Javier Osorok irabazi du Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketako lehen jardunaldia

Hamar jardunaldi izango ditu Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketaren 54. edizioak, eta Elgoibarren jokatuko dituzte horietako bi; lehena, bihar (martxoak 22), Aiastia-ko bolatokian. Soraluzeko San Andres auzoko bolatokian jokatu zuten aurreneko jardunaldia, zapatuan, neguko giroarekin, elurra ere egin baitzien eta demaseko hotza. 70 bolarik hartu zuten parte eta San Migel taldeko Javier Osoro izan zen guztietan onena, sei txirlo botata. Eibarko Asola Berri taldeko Anartz Estebanek ere sei txirlo bota zituen, baina bigarren postuan sailkatu zen. Bihar jokatuko dute txapelketako bigarren jardunaldia, 17:00etatik aurrera Aiastiako bolatokian. Gaur gauean ere egingo dute tiraldia, 23:00etatik aurrera, euro bat ordainduta. Txapelketako beste tiraldi bat ere jokatuko dute Elgoibarren, seigarren jardunaldiari dagokiona, apirilaren 26an, Idotorbeko bolatokian.



### Mendaroko aizkolariak hirugarren postuarekin konformatu behar izan dira



Ibon Errazu

Urrezko aizkolari eta harri-jasotze finalak jokatu zituzten domekan Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan, eta bi aizkolari mendaroar lehiatu ziren, Uxue Ansorregi eta Hodei Ezpeleta. Emakumeen Banakako Aizkolari Txapelketan lehiatu zen Ansorregi, Laiene Pikabea eta Karmele Gisasola *Zelai III.*arekin batera eta hirugarren postuan sailkatu zen, lanak 5,58 denboran bukatuta. Pikabea ereñotzuarrak bere ibilbideko lehenengo txapela lortu zuen, 45 ontzako bi enborrak lau minutu eta 47 segundutan moztuta. *Zelai III.*a mallabiarra sailkatu zen bigarren (5,31).

Gizonen XXV. Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketan lehiatu zen Ezpeleta, Arkaitz Etxebesterekin bikotea osatuta, baina urrun izan zuten txapela lortzeko aukera. Lehia bizia izan zen Iker Vicente eta Eneko Saralegi bikotearen eta Julen Alberdi *Txikia IV.ak* eta Ibai Soroak osatutakoaren artean, eta lehenengoek jantzi zuten irabazlearen txapela, 24,18 denboran lanak bukatuta. *Txikia IV.ak* eta Soroak 31 segundo gehiago behar izan zituzten, Ezpeletak eta Etxebestek: 27 minutu eta 48 segundu.

## Mendaroko mendizaleak Elgoibarko parajeetan ibili dira



**A**rno Guraso Elkarteko mendi taldeak antolatutako irteeran hartu zuen parte mendaroar talde batek domeka goizean. Mendarotik Aiastiaraino autoetan joan ziren eta pilotaleku partetik Morkaikoraino igo ziren, Iru-Iturritik igarota. Bidea lokaztuta topatu zuten arren, oztopo baino

jolaserako aitzakia topatu zuten lokatzetan. "A zer gozatua txikienek hartu zutena lokatzetan belaunetaraino sartuta", azaldu dute. Morkaikon hamaiketako eginda hasitako bidera itzuli ziren. Irteerari amaiera emateko suziria bota zuten, Arno taldekoen ohitura berreskuratuz.



### Herri kirolen topaketa egingo dute Mendaron

Herri kirolen topaketa egingo dute bihar Mendaron, eta herriko ikasleez gainera Soraluzekoek eta Mutrikukoek ere hartuko dute parte. Lehen Hezkuntzako 3-4-5-6. mailako ikasleek parte hartuko ahal izango dute, eta parte hartzeko ezinbestekoa izango da eskola-kirolean izena emanda egotea. Haur Hezkuntzako haurrentzat eta Lehen Hezkuntzako 1-2 mailako ikasleentzako ere txoko berezi bat prestatuko dute. Kasu honetan, ez da izenik eman behar. Herriko Enparantzan izango da topaketa, 10:30etik 12:30era.

### Gaztetxoentzako txirrindulari lasterketak, Mendaron

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta txirrindulari gaztetxoentzako lasterketak jokatuko dituzte zapatuan (martxoak 22), Mendaron, Erramone industrialdean, 16:30etik aurrera. Benjamin, alebin eta infantil mailako txirrindulari gaztetxoak arituko dira lehen.





## Elgoibarren itxi dute Master Cup pilota txapelketako ligaxka

Emakumezkoen Laboral Kutxa Master Cup bi-nakako txapelketa nagusiko ligaxka itxi zuten joan zen domekan Elgoibarren. Ikastolako frontoian jokatu zuten norgehiagoka, harmailak jendez beteta zeudela. Promesa mailako pilotariak kantxaratu ziren lehenik: June Urrutikoetxeak eta Amaia Zarrabeitiak osatutako bikoteak Edurne Carretero eta Petra Rodriguez izan zituzten aurrez aurre. Zarrabeitia eta Urrutikoetxea nagusitasunez gailendu ziren, 18-10 irabazita. Urrezko Ligaxkako norgehiagoka jokatu zuten ondoren Miriam Arraiza eta Enara Gamindek Aizane Ibarrolaren eta Uxue Osesen aurka. Norgehiagoka oso parekatua izan zen, eta azkenean 22-20 irabazi zuten Arraizak eta Gamindek. Hala, domeka ho-



netan Laudion jokatu dituzten finalerdiak jokatzeke txartela eskuratu zuten; Etxegarai-Arrillaga izango dituzte aurkari. Beste finalerdian Zabaleta-Oses eta Arrizabalaga-Bergara bikoteak lehiatuko dira. Argazki gehiago eta bideoa: **barren.eus**

## Saskibaloari eta jolasei eskainitako jardunaldia egingo dute bihar Eskola Kirolekoek

Elgoibarren Eskola Kirolean dabiltzan umeek asteburu betea izango dute hurrengoan. Aurrebenjaminen (LH1 eta LH2) Jolasen jardunaldian parte hartzeko aukera izango dute zapatuan IMH kiroldegian. 40 bat ikaslek eman dute izena eta 09:30etik 10:30era arituko dira. Benjamin eta alebin mailetako

ikasleentzat (LH3-LH4-LH5-LH6), berriz, saskibaloian aritzeko jardunaldia antolatu dute, 10:00etatik 12:00etara, Herri Eskolan. Elgoibarko Saskibalo Taldeko kideek gidatuko dute eta 40 bat neska-mutilek parte hartuko dute. Edonola ere, izena eman gabekoek ere izango dute parte hartzeko aukera.





**Mikel Leon**  
inmomikel@gmail.com

**Mikel**  
**INMOBILIARIA**

**747 459 343**  
San Ignazio kalea 1,  
20870 Elgoibar  
@mikel\_inmobiliaria

**WEBGUNE BERRIA! Bisita gaitzazu! [www.inmobiliariamikel.com](http://www.inmobiliariamikel.com)**



**LANA**

**Eskaintzak**

Egur Arte Tailerlean umeei mar-go tailerrak emateko pertsona bat behar dugu. Astelehenetik barikura, arratsaldez.

666 557 538

[egurarte@gmail.com](mailto:egurarte@gmail.com)

**Eskaerak**

Pertsona arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo etxeko langile moduan. Lanean berehala hasteko prest.

632 708 954

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. **643 505 827**

Gizonezkoa eskaintzen da adineko gizonezkoak zaintzeko.

614 114 360

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulua ditut.

**643 505 662**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

**612 540 008**

Garbiketa lanak egin eta adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua daukat. **642 180 611**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 20 urteko esperientzia eta titulu soziosanitariarioa ditut. **641 317 864**

**GARAJEAK**

Auto handi bat sartzeko garaje itxi baten bila ari gara, San Frantzisko kalean edo inguruan. Ahal dela, erosteko. Deitu.

**637 185 940 (16:30etik aurrera).**

**BESTELAKOAK**

Antonelli markako organo elektromikoa salgai. Vals eta tango soinuen laguntza doinuak ditu. Bestalde, Joxe Migel Barandiaranen obra osoa ere, salgai. 15 tomo dira. **943 752 480**

Baratze txiki bat ipini nahi duzu? Mendian egoteko txoko bat edukitzea gustatuko al litzaizuke? Mendaron lurzoru txiki bat dugu. Gустura ustiatuko bazenu, ipini gurekin harremanetan.

**652 735 489**

Toletxe kaleko etxebizitza bateko balkoian batoi bat agertu da, granate eta txuri kolorekoa. Udaltzaingoan laga dugu.

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.


Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.


**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p><b>administradores</b> Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Escuelas Euzkoako Eskola Administrazioaren Larrialdi Kontsekoa</p> <p><b>ROSA MA PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitatean hainbat postontzi egoera txarrean daude. Jakin nahi nuke horien aldaketa bizilagun guztion artean ordaindu behar dugun ala bizilagun bakoitza arduratu behar den bere postontziak.</b></p> <p>Eraikuntza antolamenduari buruzko legeak honela dio postontzien funtzionaltasunari buruz, eraikuntzaren oinarritzko baldintzetan: posta zerbitzuei sarbidea erraztu behar zaie horretarako baliabide egokiak jarriz, araudi zehatzak adierazitakoaren arabera. Familia bakarreko etxebizitza eta merkataritza edo industria lokal bereizietako entregak sarrera ondoko edo goiko aldeko kutxatilategi batean egin ahal izango dira bide publikoetik. Derrigorrez jarri beharko dira kalearen izena, zenbakia edo posta helbidearen beste datuak, baita urbanizazio edo eremuaren izena eta zenbakia ere. Azaldu daitezke era berean etxebizitzan bizi direnen izen-abizenak edo izen soziala ere.</p> <p><b> Ondorioak: Kutxatilategi komuna derrigorrezkoa da; eraikuntzaren funtzionaltasunerako ohiko elementua, komunitaterako derrigorrezkoa. Postontziaren instalazioa jabeakideen artean banatu ezin daitezkeen gastu orokortzat jo behar da. Izan ere, instalazioa ez da bizilagun baten edo gutxi batzuen onerako, baizik eta komunitatearen zerbitzurako, posta zerbitzuak ezarritako obligazioak betetzeko da. Beraz, komunitateak osotasunean ordaindu behar du ez postontzi egoera txarrean duten bizilagunek soilik.</b></p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Gure udaberriko larrosak datorren astelehenean 13 urte zoragarri! Zorionak, **June** etxekoan partetik!



Mutil-koxkor egin zaigu etxeko txikia. Zorionak, **Danel**, 11 urte handi bete dituzulako gaur! Muxu handi bat etxekoan partez.



**Maialen** maitea, 24an dagoeneko 12 urte. Espero dugu urtebetez zoragarria igarotzea. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Martin**, zure urteguenean. 8 urte gaur! Ondo-ondo ospatu, eta muxu handi bat lagunen partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



- IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

**MEKANOSA**  
Errosario, 27-Elgoibar  
**943 740 284**

# GORBEA

**Berria!**

*Eguneko menua ematen hasi gara!*

→
15€ + 1€
←

Menuko kafea

**Zatoz dastatzera!**

 @gorbea.eus

 Santa Ana, 10  943 288 180

## EXPRESS ESKAINTZAK!

### RO4B20EA COMPACT POWER XXL ROWENTA XURGAGAILU TRINKOA

89 €

- 750 W potentzia
- Effitech Motorra
- Teknologia ziklonikoa
- Aimal care
- Motordun eskuila
- 2,5 litroko edukiera



 MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Denda prezioak. Produktuak agortu arte.

## 21 BARIKUA

**16:30** *Jolasa kalera!* Atxutxia-maikak antolatuta, 0-5 urteko umeentzako. Lekuederren.

**16:45-17:45** *Golf abentura!* hitzaldia. Iker Hiriarte Gipuzkoako 2023ko Pitch & Putt txapeldunak emango du. Arno guraso elkarteak antolatuta, udaletxean. LH1etik LH6ra arteko ikasleentzat

**18:30** 7. arteari buruzko kafe tertulia. Lilan.

## 22 ZAPATUA

**10:30** Herri kirolen topaketa. Mendaroko, Soralezeko eta Mutrikuko umeentzat. Mendaroko frontoian.

**12:00** Erraldoi txikien erakusketa. Idoia Ortega eta Gorka Alonsok beraien bilduma erakutsiko dute, Mendaron, Jubilatuen Biltokiko lokalean. Ordeutegia: 12:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara.

**16:30** Benjamin, alebin eta infantil mailako txirrundulari lasterketak. Lagun Taldeak antolatuta, Mendaroko Erramone industrialdean. 16:00etan itxiko dute industrialdea.

## 23 DOMEKA

**12:00** Erraldoi txikien erakusketa. Idoia Ortega eta Gorka Alonsok beraien bilduma erakutsiko dute, Mendaron, Jubilatuen Biltokiko lokalean. Ordeutegia: 12:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara.

**19:00** 'Laburbira' emanaldia. Mendaroko San Agustin kultur-gunean.

## 24 ASTELEHENA

**18:00** Hausnarketa saioa: 'Manosfera goraka'. Loredi Salegirekin, Lilan.

## 26 EGUAZTENA

**18:30** Notariotzako prebentzio ahalak. Olaia Arana Alvarezek emango ditu argibideak. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

## 27 EGUENA

**19:00** Helduentzako ipuin kontaketa saioa, Ahoz Aho egitasmoaren barruan. Ava Andujarrek emango du, gaztelaniaz. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

**19:00** Topaketa: Isiltasunaren eskola. Jose Cruz Igartuarekin, Kultur Etxeko sotoan.

**19:00** Hitzaldia: 'Zumalakarregi eta euskal errepublika'. Ilumberri Achademiak eta Elgoibarko Izarrak antolatuta, Aita Agirreko areto nagusian.

## 28 BARIKUA

**18:30** Umorezko bakarrizketa eta tertulia: 'Ba ote dut argudiorik seme-alabek mugikorra ondo erabiltzeko?'. Amataumobila taldeak eta Udalak antolatuta, Aita Agirre kultur-gunean.

**22:00** Kontzertua: Txoteko Ezpata. Mendaroko San Agustín kultur-gunean.



**7 plateraz osatutako dastatzeko menuak 65€**

**Baratze - Belaustegi - Kanala  
Pikua - Txurruka - Urgain**

**Martxoaren 28tik apirilaren 13ra**



[www.debabarrenaturismo.com](http://www.debabarrenaturismo.com)










**Zinea** Herriko Antzokian



**'La última reina'**  
 21 barikua: 19:00  
 22 zapatua: 19:00 / 22:15  
 23 domeka: 19:00  
 24 astelehena: 21:00



**'Paddinton: aventura en la selva'**  
 23 domeka: 16:30

**2025eko botika ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00  
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00  
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**MARTXOA**

21 BARIKUA	Arriola
22 ZAPATUA	■ Fernandez / ■ Arriola
23 DOMEKA	■ Fernandez
24 ASTELEHENA	Yudego
25 MARTITZENA	■ Oruesagasti
26 EGUAZTENA	Barrenetxea
27 EGUENA	■ Soto
28 BARIKUA	Garitaonandia

2025 urte guztian, gauzez:  
 Mikel Lekunberri Alberdi. Isasi, 31 (Eibar)  
 943 204 230

■ Fernandez: Herriko Eparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Soto Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
---	---	--

Jon Arana  
 Guillermo Torres

Elgoibar  
 Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
 Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

leapoindegi zerbitzua daukagu.  
 Deitu ardua hartzeako.

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**

cordonvilarchao@telefonica.net  
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**

**LAGUNAK**  
 colchoneria textil hogar

San Roke kalea, 20  
 Elgoibar

**TEXTIL HOGAR  
 NEURRIRA EGINDAKO  
 GORTINAK ETA ESTOREAK.  
 OIHALETAN AUKERA ZABALA.  
 ZATOS ETA ESKATU AURREKONTUA!**

943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## Egutegia II

Anjel Ugarteburu



**M**endebaldeko zibilizazioan, Gregorio XIII Aita Santuak 1582an egindako kalendarioa dugu indarrean gaur egun. Fun-tsean, Julio Cesar enperadoreak kristo aurretiko 45. urtean ezarri zuena. Ez zen guztia berak asmatua izango; Egipto eta ekialdeko beste kulturetatik jasotako ekarpenei esker osatua, ziu-rrenik. Nahi duenak badu hor zer aztertu eta xehetu. Orrialde baterako nahikoa dugu labur-pen honekin.

Urtea ilargiaren zikloekin eta eguzkiaren bi-rarekin osatzen da. Ez da harritzekoa islamda-rrentzat ilargiak duen garrantzia, harekin lotuak baitira landareen erne-aroak, itsas-mareak zein emakumeen hilekoak. Edozein zibilizazio baino lehen hor zeudenak eta izango direnak.

Hilabeteen izen erromatarrei erreparatzen badiegu, argi ikusten da *Calendarium Julianum* hartan urteak beste banaketa bat zuela: *Septem, octo, novem, decem* (zazpi, zortzi, berderatzi eta hamar). Gainera, lehenago *quintilis* (bosgarrena) eta *sextilis* (seigarrena) ere ba omen ziren, gaurko uztaila eta abuztua izenda-tzeko. Argi atera ditzakegu kontuak: urtea uda-berriarekin hasten zen erromatarrentzat, maki-lak astinduz zein txorien kantuz lurra esnatu eta fruituak ematen hastearekin batera. Horregatik da abendua (*december*) hamargarrena. Enpe-radore handi-maundi horiek jainkotu zituztela-ko eta euren megalomania tarteko *Julius* (Julio) Cesar-en omenez) izendatu zuten uztaila eta haren ondorengo *Augustoren* omenez, abuztua. Gaur egungo jauntxoek omenez *Trump*-ila eta *Putin*-ila izendatuko balituzte bezala, gutxi gora-behera. Euskaraz *december* baztertuta *abendua* (adviento-etorrera) darabilgu, kristauen egute-gian Jesusen jaiotzak duen garrantzia tarteko. Horrela, neguko solstizioak, eguzkia zero er-tzean goraka hasten den garaiak, ematen dio ur+teari hasiera.

Julio Cesar-ek eta Augustok bezala, beste agintari handi asko ere saiatu izan dira hila-beteen izenak aldatzen, bakoitzaren ideia edo

egitasmoen harira. Hala Karlo Magno bera eta geroago Frantziako Erreboltaren ideologoak. Ezagunak dira *brumario, nivoso, pluvioso, ven-toso, germinal, floreal ... termidor, fructidor* e.a. Beti ere naturak urtean zehar erakusten duenari men eginez. Dena den, erreboltak erre-bolta, badirudi mendebaldean nahiko finkatuak geratu direla izen horiek.

Urtearen zikloa 12 hilabetetan eta 365/6 egunetan banatuta gero, herrialde, kultura eta hizkuntza askotan egin dira kalendarioak edo egutegiak: egunak eta hilabeteak euren ilargi-fase zein santu eta santa guztien aipa-menekin. Egunik ez, santurik gabe. Gero **Al-manake** bihurtu ziren kalendario horiek, infor-mazio zabalagoarekin. **Klima** esan nahi du hitz horrek arabieraz eta lurra lantzen zutenentzat hain funtsezkoa zen eguraldiaren berri ematen saiatzeko ziren. Bide batez, beste berri, irakur-gai eta adoktrinamenduak ere bai, noski. Gure etxeetan ezagutu ditugun horma-egutegiak edo *takoak* dira horren adibide.





**Tchintchin**  
AUDIO

**BIGARREN AUDIFONO  
PAREA 1€ GEHIAGO  
ORDAINDUTA\***

**ZURETZAT EDO NAHI DUZUNARENTZAT HILABETE HONETAN BAKARRIK**

\*kusi baldintzak entzumen-zentroan edo audiologia-affleloues-en. Urte osoan balio du. 1/25 erregistro-zenbakia.

**SAN BARTOLOME KALEA, 10  
ELGOIBAR · 943 74 37 34**

**ALAINAFFLELOU**  
*Óptica, Audiología*

Eskatu txanda  
[audiologia.afflelou.es](http://audiologia.afflelou.es)



**ETXEBERRIA**  
EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

**'barren**  
**mastodon.eus-en.**

Deskargatu aplikazioa eta jarraitu gure kontua:  
[mastodon.eus/@barren@tkm.eus](https://mastodon.eus/@barren@tkm.eus)

**Zer da Mastodon.eus?**

**Mastodon.eus euskara eta euskal kulturaren komunitatearentzat sortutako Mastodon instantzia bat da. 2018an hauek sortua:**

Azkue Fundazioa / Dinahosting  
iametza / Laborategia.eus  
PuntuEUS / Talaios Koop





# ATXUTXIAMAİKAREN UDAKŌ OPORRALDIA 2025

## HH2-HH5

### TXOKOAK:

Astelehenetik ostiralera, 09:30-13:00

### TXANDAK ETA KUOTAK:

1. txanda: ekainak 23 - uztailak 4. 70 € (bazkideek, 63 €)
  2. txanda: uztailak 7 - 18. 70 € (bazkideek, 63 €)
- Bi txandak: ekainak 23 - uztailak 18. 126 € (bazkideek, 113 €)

### ATXUTXIAMAİKAREN ZERBITZU BEREZIAK:

**Goiz Txokoa:** 08:30 - 09:30

1. txanda: ekainak 23 - uztailak 4. 41 € (bazkideek, 37 €)
  2. txanda: uztailak 7 - uztailak 18. 41 € (bazkideek, 37 €)
- Bi txandak: ekainak 23 - uztailak 18. 79 € (bazkideek, 71 €)

**Txoko osagarriak:** 09:00 - 13:00

Txanda bakarra: uztailak 21 - uztailak 24. 66 € (bazkideek, 60 €)


**Izen-ematea:** martxoaren 21etik apirilaren 13ra

\*Plazak apirilaren 22an esleituko dira

- On-line izena emateko: QRan nahiz estekan.
- Aurrez aurre : Elgoibarko Izarraren bulegoan

## UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Eskaerak: martxoaren 21etik apirilaren 30era  
H.A.Z.en (Herritarren Arreta Zerbitzuan)



labur.eus/uda25



Antolatzailea:



Gurekin lan egin nahi al duzu?  
[labur.eus/udakolaneskaintza](http://labur.eus/udakolaneskaintza)

Babeslea:



Laguntzaileak:

